

TOKIKO PROGRAMA BAT GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN

2015ean, NBEk Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, eta horren bitartez, guztion bizitza hobetzeko bide berri bat abiatzeko aukera zabaldu zuen, inor atzean utzi gabe.

Agendan Garapen Jasangarrirako 17 helburu jasotzen dira: pobrezia ezabatzea, klima-aldaketaren aurkako borroka, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurumenaren defentsa eta gure hirien diseinua, besteak beste.

Helburuek orokorrak diruditen arren, ekintzek tokikoak izan behar dutela uste dugu, **eta, 2020-2023 aldirako gobernu berri honekin, Irunek garapen jasangarriko helburuak xede izan behar dituela pentsatzen dugu.**

Hauek dira Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH):

1. Pobrezia ezabatzea, bere forma guztietan eta mundu osoan.
2. Gosea ezabatzea, elikadura-segurtasuna eta nutrizio hobetzea, eta nekazaritza jasangarria sustatzea.
3. Bizitza osasungarri bat bermatzea, eta adin guztietako pertsona guztien ongizatea sustatzea.
4. Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta etengabe ikasteko aukerak sustatzea pertsona guztientzat.
5. Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neska guztiak ahaldunduz.
6. Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria eta saneamendua bermatzea guztientzat.

7. Energia fidagarri, jasangarri, moderno eta irisgarrien eskuragarritasuna bermatzea pertsona guztientzat.
8. Hazkunde ekonomiko jarraia, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, bai eta enplegu osoa eta produktiboa ere, eta enplegu duina pertsona guztientzat.
9. Azpiegitura erresilienteak garatzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea.
10. Herrialdeen arteko eta horien barruko desberdintasunak murriztea.
11. Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. Izaki bizidun guztiak errespetatzen dituzten kontsumo- eta ekoizpen-jokabide jasangarriak bermatzea.
13. Premiazko neurriak hartzea klima-aldaketari aurre egiteko eta horren ondorioen aurka borrokatzeko.
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatzea eta erabiltzea, garapen jasangarria lortzeko.
15. Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea, eta horiek babestea eta leheneratzea; basamortutzearen aurka borrokatzea eta lurraren narriadura etetea eta buelta ematea; eta aniztasun biologikoaren galera gelditzea.
16. Gizarte bakezaleak eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarria ziurtatzeko; pertsona guztiei justiziaren eskuragarritasuna ziurtatzea; eta instituzio eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. Egikaritzeko bitartekoak indartzea eta garapen jasangarrirako munduko aliantza biziberritzea.

Helburu horiek aintzat hartuta, eta udal mailako eskumenak eta jarduteko aukerak ahaztu gabe, programa konprometitu eta parte-hartzaile bat defendatzen dugu, ekitatiboa eta anitza, berdintasun eta erantzukizun jasangarriko oinarritzko printzipioak bere gain hartuko dituen; Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuen inguruko komunikazio- eta prestakuntza-espazio izan daitekeena.

Aipatutako 17 konpromisoak hiru ekintza-ildo nagusitan egituratzen dira:

1.- Pertsonak. Berdintasuna eta gizarte-kohesioa

2.- Kontzientzia jasangarria duen garapena

3.- Aukera ekonomikoak eta oparotasuna bermatzea

Hala ere, Covid-19aren eraginez 2020ko martxoan ustekabeen harrapatu gintuen krisi sanitarioak, horren ondoko Alarma Egoerak eta kutsatze-bolada berrien ondoriozko ezegonkortasunak, goitik behera aldatu dute munduko egoera, eta udal-politikak erabat birpentsatzea eskatu digu.

Pandemiaren ondoriorik latzenak pairatu dituztenei (ikuspuntu sozial eta ekonomikotik) berehalako eta premiazko erantzunak emateko beharrak, programa berrien ezarpena (kulturan, diru-laguntzetan, kontziliazioan...) eta diru-sarreraren murrizketak (Udal Finantzaketa Funtsarenak, bai eta tasa eta zergen arloan hartutako neurrien ondoriozkoak ere) Udal honetako jardun-ildo nagusiak erabat berrikustera behartu gaituzte.

Erabateko konpromisoa hartu dugu etorkizunarekin eta garapen jasangarriko helburuekiko apustu irmoa bermatzeko beharrarekin, eta, era berean, Udaleko lehentasunak errealitatera egokitzearen aldeko apustua egin dugu; izan ere, gaur egungo ezjakintasunera, udal diru-kutxetako diru-sarreraren murrizketara eta horrelako egoera batean hiritarrei laguntzea lehenesteko erantzukizun zalantzaezinera egokitu behar dira.

1. Pertsonak. Berdintasuna eta gizarte-kohesioa

Hiria berdintasunean bizitzeko espazio gisa, zeharkako politika solidario eta parte-hartzaileen abiapuntu gisa. Behar dutenei lagunduz, egoerarik latzenean daudenekin lan eginez, eta aukera-berdintasuna bermatuz.

Helburu nagusia da pertsonentzako hiri bat egitea, emakume eta gizon guztientzako hiri bat, **hiria familiar** bizitzearen aldeko apustua eginez. Hezkuntzan inbertituz, kontziliazioan lagunduz, aisialdirako eremuak hobetuz eta handituz, parke estali zein irekiekin eta haurtxoko hobeago eta gehiagorekin.

Haurren Hiri Lagunen sarearekin bat egin duen hiria, irundar gazteenei entzun diezaiegun eta etorkizuna diseinatzen lagun diezaguten. Haurren ikuspuntua barnean hartuta.

Prebentzioan erantzukizun publikoaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, adingabe eta gazte kalteberenak hobeto artatzeko **bitarteko irekiko programa** hobetuz. Gure gazteak **elkartasunean eta aniztasunean** hezteko erantzukizun publikoa onartuz.

Guztiantzako hiri inklusibo bat egingo dugu, zeharkako moduan femeninoan pentsatuta, **IV. Berdintasun Planean** jasotzen diren ekintza eta konpromiso zehatzekin, bai eta **V. Berdintasun Planetik** ondorioztatzen direnekin ere. **Emakumeen Etxea** eta beste hainbat proiektu garatuz.

Euskararen aldeko apustua egiten duen hiria, **IV. Normalizazio Planean** jasotzen diren plan eta konpromiso zehatzak gauzatuta, euskararen erabilera eta ezagutza bizitza publiko eta pribatuko maila guztietan sustatzera bideratutako herri-ekimeneko jardueretan parte hartuta, eta Euskararen zeharkakotasuna bermatuta Udaleko arlo guztietan.

Etxebizitza publikoa defendatu eta sustatuko dugu, egungo beharretara egokituta eta etxebizitzaren izaerarik sozialena sustatuz Irunviren bitartez. [Alokairu babestuko etxebizitza](#) parke zabal batekin hiriko puntu zehatzetan: adibidez, [Alarde \(Lapitze\)](#), [San Miguel-Anaka](#), [Lucas de Berroa \(Anzaran\)](#), eta [Lastaola \(Behobia\)](#). Etxebizitzaren arazoari konponbide bilatzen saiatuta, gure gazteengan arreta berezia jarritz. Izan ere, azken horientzat proiektu espezifikoak sustatuko ditugu [San Miguel auzoan eta Emigrazio eraikinean](#).

Irunek gero eta biztanle gehiago ditu, eta era guztietako zerbitzuak eman behar dizkiegu guztiei. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari aldarrikatuko diogu [hirugarren anbulatorioa](#) gara dezala, Oñaurren horretarako gordeta dauden lurretan.

Adinekoak zaintzen jarraituko dugu, [bakarrik daudenei zuzendutako programa bereziekin](#). Arreta handiarekin behatuko dugu [Arbesko egoitza berria eta tutoretzapeko apartamentuak](#) abian jartzen direla, hain zuzen ere adinekoentzako zerbitzu-azpiegitura beharrei erantzungo baitiete.

Gaizki pasatzen ari diren eta berriro hasteko leku bat behar duten pertsonentzako etxebizitza-parkea handituko dugu, [bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzaren](#) eskaintza on bat izateko lan eginez (Housing First).

Hiritarrei ahotsa emango diegu, partaidetzaren bitartez eta [entzute aktiboa baliatuta](#). Hiritarren inplikazioa bilatuz eta [boluntariotzari laguntzeko](#) formula berriak sustatuz.

Animaliak babesten eta errespetatzen dituen hiri bat, [hirian bertan maskotekin gozatzen bideratutako politiken bitartez eta horientzat pentsatutako leku berrien bitartez](#). Haratago joango den eta animaliak bizitza-baldintza duinak izateko eskubidea duten izaki sentikor gisa ikusten dituen hiria. Animalien ongizatea bermatzeko beharrezko baliabideez hornituko den eta animaliak edukitzeko ordenantza egungo estandarretara egokituko duen hiria.

Irunek kirola egiteko espazio berriak pentsatu behar ditu. [Kirol Plan Estrategiko](#) bat garatzeko lan egingo dugu, berehalako beharrei erantzuteaz gain, hurrengo urteetako beharrei ere erantzungo diena, egungo espazioen erabilera maximizatuz eta dagoeneko ditugun espazioetan aukera berriak bilatuz: Artalekuko kiroldegia; Bentak auzoko kirol-eremua; hobekuntzak San Martzial-Txingudin; erreferentzia berriak, adibidez San Miguel Anaka, aisiarako eta kirolerako espazio berezia bilakatu daitekeena futbol-zelai batekin, aisiarako igerileku estaliekin, berdeguneekin... Horrez gain, esperientzia berriek eskaintzen dituzten aukerak bilatuko ditugu: adibidez, [Pump track pista bat](#).

Zerbitzuetan eta kultura-eskaintza anitz eta askotariko batean oinarritutako bizitza-kalitatea bermatzen duen hiria nahi dugu. Kultura-arloko [ekipamenduen plan](#) batek aztertuko ditu modu objektiboan zeintzuk diren udal-eraikin eta espazioen aukerak erabilera hobeagoak garatzeko. Erronka eta aukera handiak ditugu [CBAREN hedapenarekin kultura, musika eta arterako eremu gisa, gazteentzako esparruekin](#), eta erabilera berriekin Martindozenean.

Gure helburua da [Antzinako Terma Erromatarrak zaharberritzeko, irekitzeko eta museoan erakusteko](#) proiektua berreskuratzea, kantauri isurialde osoan horrelako beste aztarnarik ez baitago, eta, horretarako, ahalegin guztiak egingo ditugu beste instituzioen finantza-babesa lortzeko. [Ondarea](#) berreskuratzeko xede hori bera bultzatu nahi dugu Jaizubian, Eusko Jaurlaritzarekin batera; izan ere, Jaurlaritza da zaindu eta balioan jarri nahi dugun jauregi eta burdinolaren jabea.

Irunek lurralde osoan erreferentziazkoa izango den [musika-jaialdi](#) bat garatu dezala nahi dugu, eta orain arte izandako esperientzietatik ikasi behar dugu, musika-ekitaldi erakargarri eta berezi batean lan egiteko.

Guztionezko Irun bat, pertsona guztientzako zerbitzuekin, [hurbileko polizia baliagarri eta praktiko](#) batekin.

Gure historia entzun nahi dugu. Nondik gatozen eta zer gertatu den jakin nahi dugu. **Memoria Historikoarekin** dugun konpromisoa sendotuko dugu, Irungo eta Irundik kanpoko pertsona guztiek ezagutu dezaten gure historia, hain zuzen ere **Memoria Historikoko ikerketa, katalogatze, errekupeazio eta erakusketa proiektuak** garatzeko eta egia ezagutu ahal izateko.

2. Kontzientzia jasangarria duen garapena

Jasangarritasuna guztion erantzukizuna da. Hiriek, bizitza-nukleo gisa, jasangarriak izan behar dute, eta egunero hiria gero eta atseginagoa eta bizigarriagoa egitea ahalbidetzen duten ekintza txiki eta politika berdeen garrantziaz ohartu behar dira hiritarrak. Hori guztia Klima 2050 Planak ezartzen dituen helburuekin.

Arau berrietara egokitzeko bete behar diren betekizunei buruz ari gara: adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean 50.000 biztanletik gorako hirien erdiguneetarako ezartzen den "zero emisioen zonaldeak" eratzeko betekizuna eta lege horretan bertan jasotzen diren gainerako atalak.

Irunek ere aurrera egiten du kontzientzia jasangarrian, eta sentsibilitate horretatik eta gure erantzukizunaz jabetzeko eta arduratzeko beharretik eratortzen da **Energia Zerbitzu Berdea**. Espazio berri bat udal-antolakuntzan, gure gizartearen trantsizio ekologikoaren aldeko ekintza- eta kontzientziazio-politikak garatzeko.

Jasangarritasunarekin eta energia-hobekuntzarekin lotutako **laguntza ekonomikoei buruzko Aholkularitza eta Informazio Zerbitzu** bat, eta hondakinak murriztearekin eta birziklatzearekin lotutako helburu argiak, Txinzerrekin koordinatuta. Tokiko eremutik, keinu txiki eta garrantzitsuetan oinarritutako politikei eutsiko diegu: adibidez, ibilgailu jasangarriak erabiltzea udal-ibilgailu parkean, gure berdeguneen mantentze-lan gero eta eraginkorragoak, pestizida/herbizida kutsatzaileak ezabatzea, sasoiko landareak erabiltzea...

LED argiztapenerantz trantsizioa egiten jarraituko dugu, bai eta eraikinak, instalazioak eta zerbitzu publikoak **jasangarritasun-irizpideetara** egokitzen jarraitu ere, bizitegi-eremu berrietako baten bati **EkoAuzo** kategoria emateko aukera aztertuz.

Egunero lan egingo dugu irisgarritasuna hobetzeko, mugikortasun unibertsala sustatuz eta hiri atsegin eta jasangarri baten garapena bultzatuz. **Mugikortasun elektrikoarekiko** konpromisoan hainbat pauso eman ditugu jada, aurreko hiri-mugikortasun jasangarrirako planean finkatutako helburuak betetzeko, baina bide luzea dugu oraindik egiteke eta pausoak ematen jarraituko dugu arlo horretan **2. Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planari** esker.

Automobilak bere espazioak izango ditu, baina pertsonentzako tokiak irabazteko premia errespetatu beharko du. Guztiontzat onuragarriak diren formulak pentsatuko ditugu, praktikoak eta irudimen handikoak, **auzoetan aparkalekuak** gaitzeko proiektuetan gauzatuko direnak, bai lurpekoak bai azalekoak.

Gure ondare berdea zaindu eta hobetuko dugu, **Txingudiko Plan Berezia** erabat gauzatzeari bultzada emanaz ingurumen-aberastasun bereziko eremu gisa. Bertan dauden kirol-instalazioak Txenpereneara eramatea sustatuko dugu, eta Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egingo dugu, Hendaiaren eta Hondarribiaren arteko bizikleta bidezko lotura egiteko Plaiaundi zeharkatuta.

Era berean, Estatuari eskatuko diogu **Artiako erreka berriro naturalizatze**ko lanak burutu ditzala.

Eta, behin betiko pausoak emango ditugu **Olaberriako plan berezia** burutzeko. Naturgune maite horren ingurumen-berezitasuna zaintzen duen plana, lehen sektorearen bultzadarekin eta dimentsio sozialeko proiektuekin bateragarri eginez.

Udal-administrazio jarduerak ere gero eta kontzientzia jasangarriagoa izango du, **on-line udal garden** baten aldeko apustua eginez, **IrunTxartel** hobeago batekin eta **24 orduko zerbitzuarekin**, **paperik gabeko kudeaketak** egiteko joerari eutsiz.

3.- Aukera ekonomikoak eta oparotasuna bermatzea

Egoera berrira egokitutako hiri bat. Segurua, aktiboa eta bizirik. Ekonomia dibertsifikatu batekin, eta ideia bat daukaten eta hori abian jarri nahi duten pertsonen zuzendutako laguntzekin. Bizitzeko aukerak eta etorkizuneko aukerak aintzat hartuta, bizi behar ditugun ezjakintasunetatik haratago. Premiazko gauzetan pentsatuta, baina garrantzitsua dena ahaztu gabe.

2020ko martxoko krisi sanitarioa eta Alarma Egoera izan ziren familia, autonomo eta enpresei, besteak beste, zuzendutako pizgarri ekonomiko eta sozialak bideratzeko **Irun Aurrera Planaren** eragileak, eta planak hazten jarraitu du, inor atzean ez uzteko. Familiengan eta ekonomian zuzeneko eragina duten neurriekin bada ere, egungo ezjakintasan ekonomikoko egoera berriak konpromiso trinko bat eskatzen du udal-mailan, orain arte bezala, irundarren laguntza eta beharren aurrean adi egoten jarraitzeko.

Premiazkoa da Espainiako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ziurtatzea Irungo nazioarteko geltoki berriaren eraikuntzarako eta Topoa trenbide-sarean integratzeko inbertsioak egingo direla, bai eta Bentak eta Belaskoeneako geralekuak berritzeko ere.

Irunek azken urteotako erronkarik handiena dauka une honetan, etorkizunerako aukera paregabea: **Via Irun**. Elkarguneak bilatuko ditugu eragiketa horren erritmoa gelditu ez dadin, eta **konexio, jarduera eta espazio ekonomiko, berdegune eta ekipamendu** aukera berriak eman diezazkion gure hiriarri. Nolanahi ere, beste instituzio batzuen kolaborazioa eskatuko dugu, besteak beste, Hiri Barruti Berritzailea garatzeko, aukera ekonomiko berriekin.

Irunek bere esentziatik berritzen jarraitu behar du. Lanean jarraituko dugu, etengabe, **gure Alde Zaharraren errekupeazioan** lagunduko duen bizitza-espazio berri bat garatzeko, **Korrokoitz eta Papinea** eremuaren behin betiko garapenarekin, bai eta babes publikoko etxebizitzaren sustapenarekin ere.

Era berean, bizitza- eta jarduera-espazio berriak bilatuko ditugu **San Miguel Anaka** eremuan eta laster garatuko diren bestelako zonaldeetan, bai eta **Iparalde Gal** eremuaren eta pareko espazioen etorkizuneko plangintzaren bitartez ere.

Merkataritza da, izan da eta izango da gure hiriaren ikur nagusietako bat. Egungo egoeran, tokiko **merkataritza eta ostalaritzarako** laguntzak birpentsatu egin behar dira, une zail honetara egokitzeko. Ekintza berriak pentsatuko ditugu erosketekin ongi pasatzeko, eta gure merkatariei laguntzeko garai berrietara egokitzen, betiere kontuan hartuta gure txikizkako merkataritzak, jarduera ekonomikoa izateaz gain, bizitzaz betetzen dituela ere gure kaleak.

Turismoak ere atzerakada izan du "normaltasun berri" honen aurrean. Nolanahi ere, kalitatezko **turismo** seguru baten aldeko apustua egiten jarraituko dugu, jende-pilaketarik gabe, eta kalitatean eta gure nortasunean oinarrituta, Irungo hiriaren erakargarritasun bat gisa.

Irun jarduera ekonomiko berrien epizentroa izan da azken urteotan. **Zoruak berrerabiltzearen eta erabili gabe dauden pabilioiak errekupeatzearen** aldeko apustua egiten jarraitu behar dugu negozio berriak irekitzen direla ahalbidetzeko, betiere finantzazio-formula berriak bilatuz enpresa berritzaile gazteak sortzeko, eraginkorrak diren laguntzak zabalduz, eta Bidasoa Bizirik agentziako programetara iristeko baldintzak erraztuz (alokairurako laguntzak, lokalak birgaitzeko, lokalak modernizatze...), hiriko sektore ekonomikoaren eta formakuntza-sektorearen arteko lan partekatuko formulari eutsiz (**Irun Ekintzan**)

Pertsoneri buruz eta lagundu behar ditugun familiei buruz hitz egiten dugula aintzat hartuta beti, **berrikuntza pertsonaleko programen bitartez enplegu-bilaketa aktiboan laguntzeko eta lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa errazteko laguntza eta ekimenak zabalduko ditugu.**

Irunen bertan egindako instalazio benetan berezia dugu: **Ficoba**. Instalazioak aukera ugariak eskaintzen ditu jarduerak egiteko, une honetan eskatzen diren segurtasun-baldintza guztiekin.

Hiri dinamikoa eta barrutik bizitzaz betea bilatzen dugu, kanpoaldearekin ondo konektatua. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiari behin eta berriro eskatuko diogu gure nahiak parteka ditzala eta **Irun inguratzen duten errepideak hobetzearekiko konpromisoa** har dezala. Gipuzkoako Foru Aldundiak ezinbestean parte hartu beharko du Hego Ingurabidea guztiz garatzeko lanetan, hain zuzen ere GI-636 (N-1 zaharra) gure eskualdean ez banatzeagatik konpentsatzeko. Era berean, errepide horren hainbat zati hobetzeko aukera aztertu beharko du: adibidez, Kostorbeko sarreraren eta Zubi-Muxuko irteeraren artean.

HIRI BAT AUZOZ AUZO. Auzoetako plan ireki bat

Irun bere auzoek eta bertako jendeak osatzen dute. Horietan gordetzen dira hiri anitz, parte-hartzaile eta aktibo baten izaera, jarduera eta ohorea; eta, horrenbestez, horiekin batera lantzen ditu auzoetako planak, bai eta horien premiak eta zalantzak partekatu ere, "Alkatea auzoetan" eta bestelako programen bitartez.

Asfaltatze, espaloi-berritze, irisgarritasun eta bidegorriekin lotutako urteko mantentze-kanpainekin jarraitzea.

ANAKA

- Anakako txaleten eremuko hobekuntzak abian jartzea.
- San Miguel Anaka abian jartzea

ANZARAN

- Pantaila akustikoak aldarrikatzea eta sarbideak hobetzea Plaiaundin

ARBES

- Bertsolari Uztapideko plazatxoa hobetzea
- Etorkizuneko egoitzaren ondoko parking-proiektua idaztea

ARTIA

- Aparkalekua Gazteluzarren, Bienabe Artiaren ondoan
- Belartzako parkingaren proiektua idaztea.

BELASKOENEA

- Gabarrari plaza berrurbanizatzea
- Auzoko aparkalekua hobetzeko neurri zehatzak aztertzea

BEHOBIA

- Lastaola Postetxea garatzea etxebizitza publikoekin eta ekipamendu publiko berriekin
- Auzoko sarbidea hobetzea, Aldundiari eskatuz errotonda bat eraikitzea auzotik igarotzen den eta bere eskumenekoa den bidean
- Gazteluzarren arrastoak balioan jartzea, errehabilitazio-proiektu baten bitartez
- Punttaseko bidegorria hobetzea

ERDIGUNEA

- San Juan plazaren inguruko kaleak berrurbanizatzea
- Zabaltza plazaren eta Zipriano Larrañaga eta Argentinaren Errepublikaren kaleen arteko lotura hobetzea

DUNBOA

-Poxpologile kalea berrurbanizatzea

LAPITZE

-Erabilera anitzeko kirol-pista Oñaurren, haur-jokoen ondoan
-Auzora garraio publikoan iristeko aukerak hobetzea

LARREAUNDI/OLABERRIA

-Larreaundiko zentroa berreskuratzea, azpiestazio elektrikoa zegoen eremuan, jolas-espazio berriekin, eta auzoko aparkaleku eta gizarte-erakinaren proiektua idaztea
-Olaberriako haranaren ingurumen-garapena

MEAKA

-Auzora iristeko oinezkoentzako bideak hobetzea

ALDE ZAHARRA

-Ama Xantalen eta Ermita kaleak berrurbanizatzea
-Korrokoitz eta Papinea eremuko sustapen pribatuak desblokeatzea eta bultzatzea

PINAR

-Haur-jokoen parkea berritzea
-Txakurrak askatzeko eremu bat hesitzea Pinar parkean.

SAN MIGUEL

-Auzoko merkataritza-eremua berritzeko lanekin jarraitzea, esku-hartze zehatzekin Javier Esteban Indart kalean
-San Miguel Anaka hirigintza-eremua abian jartzea Donostia kalean
-Esku-hartze berriak San Miguel Anaka eremuan, familiarako kirol- eta aisia-esparru berri bat sortuz Donostia kalearen inguruan
-Emigratio eraikina birmoldatzea, auzorako gizarte-esparru handi bat sortuz, adineko pertsonentzako lokal berri bat barnean hartuta
-Pello Bixente kalea berrurbanizatzea

-Pagoa eta Haritza kaleen eta Estazio kalearen arteko irisgarritasuna hobetzeko proiektua idaztea (igogailua eskaileren ondoan).

SANTIAGO

- Junkaleko plazatxo berrurbanizatzea
- Tadeo Murgia kalea konpontzea

URDANIBIA

- Oinezkoentzako konexioa Urdanibia eta Bentak auzoen artean (Euskotren)
- Eusko Jaurlaritzari eskatu Urdanibiako Jauregia eta Errota birgaitzea

BENTAK

- Kirol-pabilioia Ugalden
- Auzo-elkarteko instalazioak hobetzea (Errepublikaren Eraikina)
- Arbiun plazako arazoak konpontzea